g) Formular cualquier consulta, queja o sugerencia sobre la atención recibida.

h) Informazio publikoa eskuratu, aplikagarria den araudian jasotako baldintzetan.

h) Acceder a la información pública en los términos recogidos en la normativa que le es de aplicación.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei, berarekin dituzten harremanetan, bermatuko die:

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa, garantizará a las ciudadanas y ciudadanos, en sus relaciones con la misma, que:

a) Errespetuzko eta begirunezko tratua jasoko dutela Foru Aldundiko agintarien eta langileen aldetik.

a) Serán tratadas con respeto y consideración por las autoridades y por el personal al servicio de la Diputación Foral.

b) Dituzten ezaugarri pertsonalen araberrako arreta jasoko dutela; horrela, arreta berezia emango zaie premia espezifikoak dituzten pertsonen, dela dibertsitate funtzionala duten pertsonak direlako, dela arreta jasotzeko unean mendeko pertsonen zaintza lanak egiten ari direlako.

b) Serán atendidas en función de sus características personales, de tal forma que se dará una especial atención a las personas con necesidades específicas, bien porque se trate de personas con diversidad funcional o porque en el momento de la atención estén realizando tareas de cuidado de otras personas dependientes.

c) Berehalako arreta jasoko dute, orokorrean, eta, ezin denean, administrazioak herritarrei arreta eraginkorra emateko behar diren mekanismoak antolatuko ditu, herritarrek beren eskubideak eta betebeharrak garaiz eta behar bezala bete ditzaten.

c) Serán atendidas, con carácter general, de forma inmediata y, cuando no resulte posible, la administración articulará los mecanismos precisos para atender eficazmente a la ciudadanía, de tal forma que pueda ejercer en tiempo y forma sus derechos y obligaciones.

8. artikulua. Administrazioarekiko harremanak.

Artículo 8. Relación con la Administración.

Herritarrek, Foru Aldundiarekiko harremanetan, jokabide hauek izango dituzte:

Las ciudadanas y ciudadanos, en sus relaciones con la Diputación foral, actuarán:

a) Une oro jarrera egokia eta errespetuzkoa izango dute arreta zerbitzuko pertsonalarekin eta une horretan zerbitzua erabiltzen ari diren gainerako erabiltzaileekin.

a) Manteniendo en todo momento una actitud educada y de respeto hacia el personal de los Servicios de Atención Ciudadana y el resto de personas usuarias que utilicen en ese momento las instalaciones.

b) Lankide izango dira pertsonalarekin, kudeaketa edo izapideetan behar diren identifikazio datuen egiazkotasuna eta zehaztasuna emanez.

b) Colaborando con el personal, facilitándole con veracidad y exactitud los datos de identificación que sean necesarios en las gestiones o trámites.

c) Zerbitzuen ordutegia eta funtzionamendua errespetatu-ko dute, eta pertsonalaren jarraibideei kasu egingo diete edozein kasutan ere.

d) Gune eta ekipamendu publikoak zaindu eta errespetatu-ko dituzte.

9. artikulua. Hizkuntza araubidea.

1. Foru Administrazioak legeetan onetsitako hizkuntza eskubideak bermatuko dizkie herritarrei; bereziki, kontuan izango dira Administrazio Publikoan euskara erabiltzeari buruzkoak, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, dioenari jarraikiz.

2. Era berean, euskararen erabilera sustatuko du lehentasunezko lan hizkuntza gisa, une bakoitzean indarrean dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren arloan eta bere Erakunde Autonomoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritakoaren arabera, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoak, ezarritakoari jarraikiz.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak bermatu behar die herritarrei arreta eta informazioa bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan jasotzeko eskubidea. Halaber, arreta eta informazioa euskara hutsez jasotzeko aukera eman behar die, ahoz nahiz idatziz, une bakoitzean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritako arauen arabera. Herritarren hizkuntza hautua Herritarren Datuen Foru Erroldan egingo da, fitxategiaren sorrerari buruzko 2014ko urriaren 31ko Foru Aginduan adierazitakoaren arabera, eta edozein unetan aukeratu ahal izango dute harremanetarako hizkuntza lehenetsia.

4. Herritarrei arreta ematen dieten langileek, ahozko, aurrez aurreko eta telefono bidezko erlazioetan, hasieran euskaraz hitz egingo diete zerbitzuetara joaten diren pertsoneri, eta horiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean jarraituko dute.

5. Halaber, euskara lan hizkuntza izan dadin, herritarren arretarako zerbitzu eta unitateek lehentasunez erabili behar dute euskara lan prozesuetan. Euskara hutsez idatzitako dokumentuak ez dira itzuliko, baldin eta barne dokumentuak badira edo administrazioen arteko harremanei buruzkoak badira, eta dena delako administrazioak euskara hizkuntza ofiziala den eremuetan badaude.

III. TITULUA

INFORMAZIO ADMINISTRATIBOIA

10. artikulua. Informazio administratiboa.

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, informazio administratiboa osatuko dute Foru Administrazioaren zerbitzuen esku dauden eduki edo agiri guztiak, baldin eta zerbitzu horiek beren eginkizun publikoak betetzean prestatu edo eskuratu badituzte eta beharrezkoak badira herritarrei behar den informazioa eta arreta emateko edo haiek eskubideak erabil ditzaten eta betebeharrak bete ditzaten.

2. Herritarrek, Informazio Administratiboaren Sistemaren bidez, interes orokorra edo partikularra edozein izanda ere, hauek guztiak ezagutu ahal izango dituzte:

a) Administrazioaren konpromisoak eta herritarren jokabide onak foru Aldundiarekiko harremanetan.

b) Ondasun eta zerbitzu publikoak erabiltzeko betekizunak.

c) Era guztietako prestazio, laguntza eta onurak.

d) Indarrean dagoen araudiak ezarritako baimenak eta gainerako errekerimenduak lortzea.

c) Respetando los horarios y funcionamiento de los Servicios y atendiendo en cualquier caso a las indicaciones del personal de los mismos.

d) Cuidando y respetando los espacios y equipamientos públicos.

Artículo 9. Régimen lingüístico.

1. La Administración foral garantizará a la ciudadanía el ejercicio de los derechos lingüísticos reconocidos en las leyes, en particular, los referidos al uso del euskera en la Administración Pública, en virtud de lo dispuesto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

2. Asimismo, promoverá el uso del euskera como lengua de trabajo prioritaria, de conformidad con lo establecido en el correspondiente Plan de Normalización del Uso del Euskera en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus Organismos Autónomos vigente en cada momento, en cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3. La Diputación Foral de Gipuzkoa garantizará el derecho de la ciudadanía a ser atendida e informada en cualquiera de las dos lenguas oficiales. Asimismo, deberá facilitarle la atención e información exclusivamente en euskera, tanto oralmente como por escrito, de acuerdo con las normas establecidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskera vigente en cada momento. La opción lingüística de la ciudadanía se materializará en el Registro Foral de Datos de la Ciudadanía, de acuerdo con lo establecido en la Orden Foral de creación del fichero de 31 de octubre de 2014, pudiendo elegir en cualquier momento la lengua de contacto preferente.

4. El personal de atención ciudadana en las relaciones orales, presenciales y telefónicas, en primera instancia, se dirigirá a las personas que acudan a sus servicios en euskera, y continuará en la lengua oficial que aquellas elijan.

5. Asimismo, para que el euskera sea lengua de trabajo, los servicios y unidades de atención a la ciudadanía deberán utilizar el euskera como lengua preferente en los procesos de trabajo. No se traducirán los documentos redactados exclusivamente en euskera cuando se traten de documentos internos o de relaciones entre administraciones que se encuentren en ámbitos en los que el euskera sea lengua oficial.

TÍTULO III

LA INFORMACIÓN ADMINISTRATIVA

Artículo 10. Información administrativa.

1. Formarán parte de la información administrativa, a los efectos de este decreto foral, cualesquiera contenidos o documentos que obren en poder de los servicios de la Administración foral, que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones públicas y que sean necesarios para facilitar la debida información y atención a la ciudadanía y para el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de las obligaciones por parte de la misma.

2. Las ciudadanas y los ciudadanos a través del Sistema de Información Administrativa, independientemente de tener un interés general o particular, podrán acceder al conocimiento de:

a) Compromisos de la Administración y buenas prácticas ciudadanas en sus relaciones con la Diputación Foral.

b) Requisitos para la utilización de bienes y servicios públicos.

c) Prestaciones, ayudas y beneficios de todo tipo.

d) Obtención de autorizaciones y demás requerimientos establecidos por la normativa en vigor.

e) Administrazioaren funtzionamenduari buruzko datuak eta informazioa.

3. Informazioa herritarrei printzipio hauen arabera eman- go zaie: argitasuna, ulertzeko erraztasuna, homogeneousasuna, osotasuna, egiazkotasuna, etengabeko eguneratzea, sexuagati- ko diskriminaziorik eza, herritarren hizkuntza hautua errespetatuz egitea, aurrerapen teknologikora egokitzea, eta sarbiderako ahalik eta erraztasun handiena izatea.

11. artikulua. Informazio tipologia eta sarbidea.

1. Informazio administratiboa eduki orokor, espezializatu eta partikularren arabera sailkatzen da.

2. Informazio orokorra da xede hauek dituen informazio administratiboa:

a) Foru Administrazioaren erakunde eta unitate administra- tiboen identifikazioa eta helburuen ezagutza, eskumenak, egitu- ra, funtzionamendua eta kokapena eskaintzea, baita indarrean dagoen araudiak behartzen dituen publikotasun aktiboaren edu- kiak ere.

b) Une bakoitzean indarrean dauden xedapenek herrita- rrek egin nahi dituzten jarduketei, eskaerei eta proiektuei ezar- tzen dizkieten betekizun juridiko eta teknikoak ezagutzea.

c) Oinarriko informazioa lortzea herritarrek eskuratzeko eskubidea duten edo arreta emateko betebeharra duten proze- duren, zerbitzuen eta prestazioen izapideari buruz.

d) Herritarrek Foru Administrazioarekin dituzten harrema- netan ezagutu behar duten beste edozein datu.

3. Informazio espezializatutzat jotzen da ezagutza tekniko eta kualifikatua eskatzen duena; oro har, dagokion erakunde kudeatzaileak emango du, arlo edo gai espezifikoak ezagutzen baitu.

4. Informazio orokorra eta espezializatua herritarren esku- ra jarriko da, baita haien berri izan nahi duten gizarte talde edo erakundeen eskura ere, edozein bide erabilita, telefonoz edo te- lematika bidez, eta ez da inolako legitimaziorik egiaztatatu behar.

5. Informazio partikularra izapidetzen ari diren prozedura administratiboaren egoera edo edukiari buruzkoa da, baita Foru Administrazioaren zerbitzura dauden agintarien eta pertsona- laren identifikazioari buruzkoa ere, baldin eta horien erantzukizunpean izapidetzen badira prozedura horiek. Informazio hori prozedura bakoitzean eskainiko da administrazio prozedura er- kideari buruzko araudian ezarritakoaren arabera; hala, behar besteko moduan egiaztatuta jaso beharko da eskatzailearen pertsonalitatea eta interesdunaren izaera edo, kasua balitz, le- gezko ordezkariaren izaera.

12. artikulua. Informazioa ekoiztea eta kudeatzea.

1. Zerbitzu edo unitate administratiboek, informazioa sartz- en dutenez, ardura izango dute informazioa Informazio Admi- nistratiboaren Sistemaren era egokian sartzeko, aldatzeko, horri jarraipena egiteko, eguneratzeko eta haren koherentzia man- tentzeko.

2. Informazio orokorra eguneratu egingo da herritarren arreta korporatiboaren alorrean eskumena duten zerbitzuek ze- haztutako irizpide eta estandarren arabera, behar besteko au- rrerapenarekin arreta zerbitzu guztiek herritarren eskaerei eran- ztun egokiak emateko.

3. Herritarren arreta berezia eta handia eskatzen badu programa edo zerbitzu publiko, informazio kanpaina edo urtaro- ko jardueraren edo bestelako jardueraren bat abiarazteak, zerbitzu sustatzaileek kontuan izan beharko dute informazio horrek he- rritarren arretan duen inpaktua eta ezartzen denean departa-

e) Datos e información sobre el funcionamiento de la Ad- ministración.

3. La información se proporcionará a la ciudadanía de acuer- do con los principios de claridad, facilidad de comprensión, homo- geneidad, integridad, veracidad, permanente actualización, no dis- criminación por razón de sexo, respeto a la opción lingüística de la ciudadanía, así como los de adaptación al progreso tecnológico y máxima facilidad de acceso.

Artículo 11. Tipología de información y acceso a la misma.

1. La información administrativa se clasifica por razón de su contenido en general, especializada y particular.

2. Es información general la información administrativa que tiene por objeto:

a) Facilitar la identificación y el conocimiento de los fines, competencias, estructura, funcionamiento y localización de or- ganismos y unidades administrativas de la Administración foral, con inclusión de los contenidos de publicidad activa obligados por la normativa en vigor.

b) Conocer los requisitos jurídicos y técnicos que las dispo- siciones en vigor en cada momento imponen a las actuaciones, solicitudes y proyectos que ciudadanas y ciudadanos se propon- gan realizar.

c) Obtener información básica acerca de la tramitación de procedimientos, servicios y prestaciones a los que ciudadanas y ciudadanos tienen derecho a acceder u obligación de atender.

d) Cualquier otro tipo de datos que ciudadanas y ciudada- nos tienen necesidad de conocer en sus relaciones con la Admi- nistración foral.

3. Se entiende por información especializada aquella que requiere unos conocimientos técnicos especialmente cualifica- dos y con carácter general será facilitada por los respectivos ór- ganos gestores en tanto que conocedores del ámbito o materia específica.

4. La información general y la especializada se facilitarán a la ciudadanía, así como a los grupos sociales o instituciones que estén interesados en su conocimiento, a través de cual- quier medio, presencial telefónico o telemático y no requiere acreditar legitimación alguna.

5. Información particular es aquella concerniente al esta- do o contenido de los procedimientos administrativos en trami- tación, y a la identificación de las autoridades y personal al ser- vicio de la Administración foral bajo cuya responsabilidad se tra- mitan aquellos procedimientos. Esta información será facilitada en cada procedimiento de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre procedimiento administrativo común, o, en su caso, normativa específica debiendo constar acreditada de modo suficiente la personalidad de quien solicita y su condición de persona interesada o, en su caso, la condición de represen- tante.

Artículo 12. Producción y gestión de la información.

1. Los servicios o unidades administrativas en tanto que generadores de la información, serán responsables de la ade- cuada inserción, modificación, seguimiento, actualización y co- herencia de su información en el Sistema de Información Admi- nistrativa.

2. La información general será actualizada de acuerdo con los criterios y estándares definidos por el servicio compe- tente en materia de atención ciudadana corporativa con la an- telación suficiente para conseguir que la totalidad de los servi- cios de atención ofrezcan las respuestas adecuadas a la de- manda de la ciudadanía.

3. La puesta en marcha de un nuevo programa o servicio público, campaña informativa, actividad estacional o cualquier otra actividad que requiera una atención ciudadana especial e intensa conllevará la obligación de los servicios impulsores de la misma de tomar en cuenta el impacto de esa información en

mentuko arreta zerbitzua eta Herritarren Arreta Korporatiboaren Arreta Zerbitzua, aintzat hartu beharko dituzte.

4. Foru Aldundiko departamentuek bermatuko dute Arreta Zerbitzua Herritarren Arreta Korporatiboaren Arreta Zerbitzua-
rekiko koordinazioa, hartara departamentuari buruzko informa-
zioa zuzena izateko eta une oro eguneratuta egoteko.

IV. TITULUA

HERRITARREN ARRETARAKO FORU SISTEMA ETA ZERBITZUAK

I. KAPITULUA. HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUEN INTEGRITATEA ETA JARDUTEKO PRINTZPIOAK

13. artikulua. Erakundearen Zuzentasun Sistema eta arretako langileen jarduteko arauak.

1. Herritarrei arreta emateko funtzioak egiten dituzten pertsonen portaera egokitu beharko dute Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeko balio, printzipio eta arauetara. Kode hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezartzen da.

2. Era berean, eta herritarren arretarako langileek herritarrekiko erlazioan posizio nabarmena dutenez, hauek egin beharko dituzte:

a) Era egokian arreta eman behar dute, eta herritarren aurrean identifikatu behar dute horrela eskatuz gero. Oro har, izenarekin identifikatuko dira, non eta foru departamentuek era arrazoituan bestela egitea proposatzen ez duten. Kasu horretan, inplikaturako dagoen enplegatu bakoitzari emandako zenbakiaren bidez identifikatuko dira, beren eskubideak babesteko helburuarekin.

b) Herritarrei arreta eman behar diete kontuan hartuz Gipuzkoako gizartearen dibertsitatea eta gizartea osatzen duten pertsonen behar bereziak.

c) Ezagutu behar dute beren jarduketa arloari dagozkien zerbitzuak, horietako bakoitzean aritzen diren erakunde eta/edo pertsonak, baita zerbitzu horiek egiten dituzten unitate administratiboen zuzendaritzak eta eskaera egiteko epeen mende dauden zerbitzuen baldintza orokorrak ere.

d) Lan eremutik kanpo, konfidentzialtasuna gorde behar dute zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen eta haien kontsultaren xedearen inguruan.

14. artikulua. Jarduketa printzipioak eta irizpideak.

1. Printzipio, jarduketa eta ebaluazio irizpide komunek arautuko dituzte Arretarako Foru Sistema osatzen duten herritarren arreta zerbitzuak, foru dekretu honen 4. artikuluan aipatutakoak, hartara koherentzia bermatzeko, Sistemaren ikuspegi osoa izateko eta Sistemaren ezagutza hobetzeko. Horretarako, arreta zerbitzu guztiek lankidetzara aktiboa izango dute herritarren arreta korporatiboaren eskumena esleituta duen zerbitzuarekin.

2. Herritarrentzako arreta zerbitzu guztiek irisgarritasun unibertsalaren irizpideekin eskainiko dute arreta, hala instalazioei dagokienez nola pertsonentzako arretari dagokienez, eta xedea izango da une oro bermatzea, batetik, pertsonen arreta eta informazioa era egokian jasotzen dutela beren egoera pertsonalarekiko, bereziki dibertsitate funtzionala duten eta zaintza lanetan ari diren pertsonen kasuan, eta, bestetik, egokiak direla ulermen hoberako eskaintzen diren baliabideak.

3. Herritarren arretarako zerbitzuek eta herritarrekin harremanetan jartzeko kanal guztiek, hala idatzizkoek nola ahokoek, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo dute, eta ez dute adieraziko emakumeen irudi anakroniko eta estereotipatu bat,

la atención ciudadana e involucrar al Servicio de atención ciudadana del departamento y al Servicio Corporativo de Atención Ciudadana, Arreta Zerbitzua, en su implantación.

4. Los departamentos de la Diputación Foral asegurarán la coordinación con el Servicio Corporativo de Atención Ciudadana, Arreta Zerbitzua, para que la información relativa al departamento sea correcta y esté actualizada en todo momento.

TÍTULO IV

SISTEMA Y SERVICIOS FORALES DE ATENCIÓN CIUDADANA

CAPÍTULO I. INTEGRIDAD Y PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN CIUDADANA

Artículo 13. Sistema de Integridad Institucional y normas de actuación del personal de atención.

1. Las personas que realizan funciones de servicio de atención ciudadana deberán ajustar su comportamiento a los valores, principios y normas de conducta establecidos en el Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público Foral enmarcado en el Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de su sector público.

2. Asimismo, y dada la posición destacada del personal de atención ciudadana en su relación con la ciudadanía, deberán:

a) Atender con corrección e identificarse ante la ciudadanía si así fuere requerido. La identificación se hará, con carácter general, de forma nominativa, salvo en los supuestos en que razonadamente así lo propongan los departamentos forales, en cuyo caso se hará a través del número asignado a cada una de las personas empleadas implicadas con el fin de salvaguardar sus derechos.

b) Prestar la atención ciudadana considerando la diversidad de la sociedad de Gipuzkoa y las especiales necesidades de las personas que la conforman.

c) Conocer los servicios correspondientes a su área de actuación, los órganos y/o las personas que desarrollan cada uno de ellos, así como las direcciones de las unidades administrativas que los realizan y las condiciones generales de aquellos servicios sujetos a plazos de solicitud.

d) Mantener la confidencialidad sobre las personas que demandan sus servicios y el objeto de su consulta fuera de su área de trabajo.

Artículo 14. Principios y criterios de actuación.

1. Los servicios de atención ciudadana integrantes del Sistema Foral de Atención, referidos en el artículo 4 del presente decreto foral, se regirán por principios y criterios de actuación y evaluación comunes, en aras a garantizar la coherencia y visión global del conjunto del Sistema y mejorar el conocimiento del mismo. Con ese fin, todos los servicios de atención colaborarán activamente con el servicio que tenga atribuida la competencia de atención ciudadana corporativa.

2. Todos los servicios de atención ciudadana prestarán la atención desde criterios de accesibilidad universal, tanto en lo relativo a instalaciones como en la atención a las personas, garantizando en todo momento que éstas reciben la atención e información de forma adecuada a su situación personal, especialmente en el caso de personas con diversidad funcional y en tareas de cuidado y que los medios que se facilitan para su mejor comprensión son los adecuados a sus necesidades.

3. Los servicios de atención ciudadana y todos los canales de relación con la ciudadanía, tanto escritos como orales, harán un uso no sexista del lenguaje y evitarán transmitir una imagen anacrónica y estereotipada de las mujeres, así como emplear

eta ez dute egingo sexu baten edo beste sexu baten nagusitasun edo gutxiagotasunean oinarritutako edozein adierazpen. Irizpide hori orobat aplikatuko da irudiak erabiltzen direnean.

II. KAPITULUA HERRITARREN ARRETARAKO SISTEMA ETA ZERBITZU KORPORATIBOA ANTOLATZEA

15. artikulua. Herritarren Arretarako Foru Sistema koordinatzea.

1. Herritarren Arretarako Foru Sistema osatzen duten zerbitzuek eta elementuek modu koordinatuan jardungo dute zerbitzu osoa eta kalitatezkoa emateko, informazioaren zatiketa eta inkoherentzia saihesteko, eta herritarrek foru administrazioarekiko harremanetan komunikabidea aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

2. Herritarren arreta korporatiboaren eskumenak dituen zerbitzuak arretarako bideak eta tresnak koordinatzeko eta elkarri lotzeko eskumena izango du.

3. Zerbitzu horrek koordinazio lanetan dituen funtzioak hauek izango dira:

- Koordinatzea herritarrentzako arreta zerbitzuak eta bermatzea sistemaren koherentzia.
17. artikuluko Zerbitzu Akordioak bultzatzea.
- Arretarako estandar gutxienekoak proposatzea eta finkatzea, era koordinatuan.
- Sistema bere osotasunean ebaluatzea herritarren arretarako departamentu eta zerbitzuekin lankidetzan, eta ebaluatzeko irizpide eta adierazle komunak finkatzea.
30. artikuluan aurreikusitako kontsulten, kexen eta iradokizunen urteko memoria egitea.
- Gertubide kontsulten, kexen eta iradokizunen sistema korporatiboa kudeatzea.
- Herritarren arretan jarduteko liburuxkak edo jarraibideak egitea.
- Sistema hobeto koordinatzeko aukera ematen duen beste edozein funtzio.

4. Koordinazio lanean foru erakundearen koordinazio mekanismoak erabiliko dira, departamentuekin mantentzen diren aldebiko erlazioez gain.

16. artikulua. Herritarren Arretarako Zerbitzu Korporatiboa eta bere funtzioak.

1. Arreta Zerbitzua Herritarren Arretarako Zerbitzu Korporatiboa, 4.3.a) artikuluan definitua dagoena, foru erakundearen informazio eta arreta orokor eta integralerako zerbitzu gisa eratu da.

2. Hauek dira zerbitzu horren funtzioak:

- Herritarrei informazio orokorra edo berezia ematea, eta orientatzea Foru Aldundiaren departamentuek ematen dituzten zerbitzuen inguruko informazioari buruz.
- Orientazioa eskaintzea beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen duten zerbitzu publikoei buruz.
- Identifikatzea eta interesdunari ematea, beharrezkoa izanez gero, informaziorako eta prozedurei lotuta dauden dokumentuetarako sarbidea.
- Herritarrei eskaintzea Foru Aldundiarekin egin behar dituzten izapideetarako formulario, sistema eta dokumentuak. Horiek guztiak sexuaren aldagaia izango dute ondorio estatistikoei tarako.
- Herritarrek orientatzea eta aholkuak ematea dokumentuak eta formularioak betetzeko, hala dagokionean, erantsi beharreko dokumentazioari buruz informatuz.

cualquier expresión fundada sobre la idea de superioridad o inferioridad de uno u otro sexo. Ese mismo criterio se aplicará en el caso de utilización de imágenes.

CAPÍTULO II. ORGANIZACIÓN DEL SISTEMA Y SERVICIO CORPORATIVO DE ATENCIÓN CIUDADANA

Artículo 15. Coordinación del Sistema Foral de Atención Ciudadana.

1. Los servicios y elementos que conforman el Sistema Foral de Atención Ciudadana actuarán de forma coordinada con el objeto de prestar un servicio completo y de calidad, evitar la fragmentación e incoherencia de la información y garantizar el derecho de la ciudadanía a la elección del medio de comunicación en su relación con la Administración foral.

2. El servicio que tenga atribuida la competencia de atención ciudadana corporativa es el competente para la coordinación e interrelación de los canales e instrumentos de atención.

3. Serán funciones del citado servicio en sus labores de coordinación:

- Coordinar los servicios de atención ciudadana y garantizar la coherencia del sistema.
- Impulsar los Acuerdos de Servicios del artículo 17.
- Proponer y fijar de forma coordinada estándares mínimos de atención.
- Evaluar el sistema en su integridad en colaboración con los departamentos y servicios de atención ciudadana especializados y fijar criterios e indicadores comunes de evaluación.
- Realizar la memoria anual de consultas, quejas y sugerencias prevista en el artículo 30.
- Gestionar el sistema corporativo de consultas, quejas y sugerencias, Gertubide.
- Elaboración de manuales o instrucciones de actuación en atención ciudadana.
- Cualesquiera otras que posibiliten una mejor coordinación del sistema.

4. En la labor de coordinación se hará uso de los mecanismos de coordinación propios de la Institución foral, además de las relaciones bilaterales que se mantengan con los departamentos.

Artículo 16. Servicio Corporativo de Atención Ciudadana y funciones.

1. El Servicio Corporativo de Atención Ciudadana, Arreta Zerbitzua, definido en el artículo 4.3.a) se configura como el Servicio de información y atención general e integral de la institución foral.

2. Son funciones de este servicio:

- Proporcionar a la ciudadanía información general o particular, y orientación sobre la información facilitada por los departamentos de la Diputación foral respecto a los servicios ofrecidos por éstos.
- Proporcionar orientación sobre servicios públicos prestados por otras administraciones o entes públicos.
- Identificar y facilitar a la persona interesada, en caso de ser necesario, el acceso a la información y a los documentos asociados a los procedimientos.
- Ofrecer los formularios, sistemas y documentos necesarios para la realización de sus trámites con la Diputación foral, que incorporarán la variable sexo a efectos estadísticos.
- Orientar y asesorar a la ciudadanía en la cumplimentación de los documentos y formularios, informando en su caso sobre la documentación que deben acompañar.

f) Informazio espezializatua ematea kasu bakoitzeko araudi zehatzaren arabera, edo erakunde eskudunari bidaltzea tratamendu espezializatua behar duten herritarren eskaerak edo kontsultak.

g) Aurretiatzko hitzorduaren zerbitzua duten izapide eta ku-deaketak egiteko aurretiatzko hitzorduak kudeatu eta ematea.

h) Pertsonen emandako dokumentazioa jasotzea, eta dagokion zerbitzura bideratzea izapidetu eta egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako informazioan oinarrituta; eta, kasua balitz, dagokion prozedura administratiboaren izapidea hastea.

i) Eskaerak, idatziak eta dokumentuak erregistratzea, dokumentua entregatu izanaren frogagiria emanez.

j) Prozedura administratibo partikularren izapide egoerari buruzko informazioa ematea interesdun izaera duten pertsonen, aurrez identifikatuta.

k) Ziurtagiriak egitea baldin eta prozedura automatizatuaren bidez egiten badira, departamentu bakoitzak zehazten duen kasuetan.

l) Herritarrei entregatzea unitate administratiboetako edozein dokumentazio, hala ezarritu gero.

m) Baliabide elektronikoen bidez egin beharreko izapideak egiteko laguntza ematea.

n) Partaidetza eta lankidetzaren baliabideetarako sarbidea ematea herritarrei.

o) Informatzea eta orientatzea kontsulta, kexa eta iradokizunen sistemarako sarbideari buruz eta sarbide hori zuzenean ematea.

p) Laguntza ematea foru Administrazioarekin harremanetan jartzeko baliabide elektronikoen erabili behar ez dituzten pertsonen horiek erabiltzen, bereziki identifikatzeko, sinadura elektronikorako, erregistro elektronikoen orokorren bidez eskararik aurkezteko eta benetako kopiak lortzeko.

q) Herritarrentzako informazio eta arreta funtzioa betetzeko esleitzen zaizkion gainerakoak.

17. artikulua. Herritarren Arretarako Zerbitzuaren hitzarmena.

1. Herritarren Arretarako Zerbitzuaren hitzarmenaren bidez, alde batetik, herritarrei arreta korporatiboa emateko eskumenak esleituta dituen departamentuak gainerako departamentuekin adosten ditu, bai herritarrei zuzendutako zerbitzuak –zeinen informazioa eta arreta Arreta Zerbitzua Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzu Korporatiboan eskainiko baita–, bai informazio eta arreta hori emateko modua; eta, bestetik, jasotzen dituen departamentuetako herritarren arretako zerbitzuek emango dituzten arreta orokorreko eta izapidetze korporatiboko zerbitzuei buruzko konpromisoak.

2. Herritarren Arretarako Zerbitzu hitzarmenak funtsezko elementuak dira herritarrei arreta emateko prozesu osoaren kaltetan, helburu baitute informazio fluxuak argiak eta eskuragarriak izan daitezen bermatzea. Horregatik, hitzarmenek foru departamentu bakoitzeko zerbitzuen eskaintzari eta eskaerari erantzuteko behar diren baliabideak eta protokoloak aurreikusitu dituzte.

3. Herritarren Arretarako zerbitzu hitzarmenek alderdi hauek jasoko dituzte:

3.1. Departamentuak izanik Arreta Zerbitzuaren bidez eman daitezkeen zerbitzuak, eta, horiei dagokienez, dagokion foru departamentuak bere gain hartzen dituen betebeharrak:

f) Proporcionar información especializada conforme a la normativa específica en cada caso, o remitir al órgano competente, las solicitudes o consultas de la ciudadanía que requieran de un tratamiento especializado.

g) Gestionar y facilitar la concertación de citas previas para la realización de los trámites y gestiones que dispongan de servicio de cita previa.

h) Recibir la documentación aportada por las personas, y dirigirla al servicio competente para su tramitación, su comprobación, en base a la información facilitada por los órganos competentes y, en su caso, el inicio de la tramitación del correspondiente procedimiento administrativo.

i) Registrar solicitudes, escritos y documentos, expidiendo los correspondientes justificantes de entrega de documentación.

j) Ofrecer información sobre el estado de la tramitación de los procedimientos administrativos particulares a aquellas personas que tengan la condición de interesadas, tras su previa identificación.

k) Emitir certificados cuya confección se realice por procedimientos automatizados, en los supuestos que determine cada departamento.

l) Entregar a la ciudadanía cualquier documentación procedente de las unidades administrativas que así lo establezcan.

m) Proporcionar asistencia para la realización de trámites a través de medios electrónicos.

n) Facilitar a la ciudadanía el acceso a los instrumentos de participación ciudadana.

o) Informar y orientar sobre el acceso al sistema de consultas, quejas y sugerencias y facilitar dicho acceso directamente.

p) Asistir a las personas no obligadas al uso de medios electrónicos en su relación con la Administración foral en el uso de los mismos, especialmente en lo referente a identificación, firma electrónica, presentación de solicitudes a través del registro electrónico general y obtención de copias auténticas.

q) Aquellas otras que le sean asignadas para el cumplimiento de la función de información y atención a la ciudadanía.

Artículo 17. Acuerdos de Servicio para la Atención Ciudadana.

1. Los Acuerdos de Servicio para la Atención Ciudadana son el instrumento mediante el cual, de un lado el departamento que tenga atribuidas las competencias de atención ciudadana corporativa acuerda con el resto de departamentos aquellos servicios dirigidos a la ciudadanía que serán objeto de información y atención en el Servicio Corporativo de Atención Ciudadana, Arreta Zerbitzua, y el modo de llevar a cabo dicha información y atención; y, de otro, recoge los compromisos relativos a los servicios de atención general y tramitación corporativa que van a ser prestados por los servicios de atención ciudadana de los diferentes departamentos.

2. Los Acuerdos de Servicio para la Atención Ciudadana son elemento esencial de la calidad de todo el proceso de atención ciudadana, dado que están dirigidos a garantizar que los flujos de información sean claros y accesibles. Por ello, los Acuerdos preverán los recursos y protocolos necesarios para dar respuesta a la oferta y demanda de los servicios de cada uno de los departamentos forales.

3. Los Acuerdos de Servicio para la Atención Ciudadana recogerán, entre otras cuestiones:

3.1. Los servicios del departamento susceptibles de ser atendidos en Arreta Zerbitzua y respecto de éstos las obligaciones que asume el departamento foral correspondiente:

- a) Zerbitzu bakoitzeko izapideak.
- b) Herritarren arretarako eginkizunaren definizioa prozesu bakoitzean.
- c) Herritarrek bete behar dituzten errekerimendu, formulario edo dokumentuak eta zerbitzuaren epeak.
- d) Arreta protokoloak.
- e) Informazio sistema edo sarbidea izan behar den aplikazioak.
- f) Harremanetarako pertsonak eta solaskideak.
- g) Arreta Zerbitzuan eskainiko diren zerbitzuen deskribapen fitxak.
- h) Horiek ezartzeko behar den beste edozein.

3.2. Herritarren arretarako zerbitzuek emango dituzten arreta orokorreko eta izapidetze korporatiboko zerbitzuak. Zerbitzu horiei dagokienez, herritarren arreta korporatiboaren ardura duen zerbitzuak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- a) Informazio zehatza eskaintzea horiek behar bezala kudeatzeko behar diren prozesu eta izapideei buruz.
- b) Arreta aplikaziorako eta hura izapidetzeko behar diren aplikazio informatikoetarako sarbidea eta erabilera erraztea.
- c) Langileak prestatzea zerbitzu korporatiboak ematea.
- d) Horiek ezartzeko behar den beste edozein.

3.3. Zerbitzu hitzarmenaren jarraipena egiteko eta zerbitzu berriak sartzeko mekanismoak.

4. Lehen maila batean arreta eman behar diren erantzunen erreperitorioa areagotzeko, arreta zerbitzutik arlora era errepikakorrean zein kontsulta bideratzen diren ebaluatuko da, eta aztertuko da horiek Arreta Zerbitzua Herritarren Arretarako Zerbitzu Korporatiboak erantzun ditzan.

5. Foru Aldundiko departamentuek solaskideak izendatu beharko dituzte herritarren arretarako arloan; hala, pertsona horiek arreta fluxuen lotura eta euskarriak izango dira.

III. KAPITULUA. ARRETA ZERBITZUEN KALITATEA

18. artikulua. Datuak biltzeko sistemak.

1. Herritarren arretarako zerbitzuek, erabiltzaileen behar eta igurikimenak ezagutzeko eta zerbitzu hobetu asmoz, datu hauek erregistratuko dituzte, gutxienez: erabiltzaile kopurua, interakzio mota, eskatzaile bakoitzaren itzarote denbora, arreta emate bakoitzak irauten duen denbora eta arreta zein postutan eman zaion, eskatzailearen sexua, zein hizkuntzatan eman zaion arreta, eskatu duen zerbitzu zehatza eta interakzioaren xedea bete den.

2. Datu horien biltzea mekanismo automatikoen bidez edo automatikoki lortu ezin diren datuen erregistroaren bidez egin daiteke; beraz, kanal guztiek zerbitzuen erabilera maila eta erabiltzaileen portaera neurtzeko aukera emango duten sistemak aurreikusiko dituzte.

3. Datuak kudeatzeko eta web-analisiak egiteko sistemak ezarri beharko dira komunikazio kanal eta sareetan, zerbitzuen erabilera maila eta erabiltzaileen beharrak eta portaerak neurtzeko.

19. artikulua. Zerbitzu Kartak.

1. Herritarren Arretarako Foru Sistema osatzen duten zerbitzu eta unitateek Zerbitzu Kartak onartuko dituzte. Horiek informazioa emango dute zerbitzuaren ezaugarriei buruz, adieraziko dute erabiltzaileek zein eskubide eta betekizun dituzten, eta kalitate konpromisoak azalduko dituzte.

- a) Trámites que incluye cada servicio.
- b) Definición de las tareas de atención ciudadana en cada proceso.
- c) Requerimientos, formularios o documentos que deben ser cumplimentados por la ciudadanía y plazos del servicio.
- d) Protocolos de atención.
- e) Sistema de información o aplicaciones a las que es necesario acceder.
- f) Personas de contacto e interlocutoras.
- g) Fichas descriptivas de los servicios que se presten por Arreta Zerbitzua.
- h) Cualesquiera otras necesarias para la implantación de los mismos.

3.2. Servicios de atención general y tramitación corporativa que prestarán los diferentes servicios de atención ciudadana y, respecto de éstos, el servicio responsable de la atención ciudadana corporativa asume las siguientes obligaciones:

- a) Ofrecer una información detallada sobre los procesos y trámites requeridos para una adecuada gestión de los mismos.
- b) Facilitar el acceso y uso a la aplicación Arreta y a las aplicaciones informáticas necesarias para su tramitación.
- c) Formar al personal para la prestación de los servicios corporativos.
- d) Cualesquiera otras necesarias para la implantación de los mismos.

3.3. Mecanismos de seguimiento del Acuerdo de Servicio e incorporación de nuevos servicios.

4. Con el objetivo de incrementar el repertorio de respuestas a atender en primera instancia, se evaluará qué consultas se derivan de manera repetida desde el servicio de atención al área y se estudiará la posibilidad de atender a éstas desde el Servicio Corporativo de Atención Ciudadana, Arreta Zerbitzua.

5. Los departamentos de la Diputación Foral deberán designar personas interlocutoras en materia de atención ciudadana, las cuales actuarán como enlace y soporte de los flujos de información y atención.

CAPÍTULO III. CALIDAD DE LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN

Artículo 18. Sistemas de recogida de datos.

1. Los servicios de atención ciudadana, con el objeto de conocer las necesidades y expectativas de las personas usuarias y mejorar el servicio, registrarán, como mínimo, los siguientes datos: número de usuarias, tipo de interacción, tiempo de espera de cada persona demandante, tiempo que dura cada atención y puesto en que ha sido atendida, sexo de la persona demandante, idioma en que ha sido atendida, servicio concreto que ha solicitado y el cumplimiento del objeto de la interacción.

2. La recogida de esos datos puede obtenerse bien a través de mecanismos automáticos o bien mediante el registro de datos que no pueden ser obtenidos automáticamente, por lo que todos los canales preverán sistemas que permitan medir el grado de utilización de los distintos servicios y el comportamiento de las personas usuarias.

